

ZUBIKOA KIROLDEGIKO ALDAGELAK, SARRERAK/IRTEERAK ETA ZIRKULAZIOAK ERABILTZEKO ARAUDIA

NORMATIVA DE USO DE VESTUARIOS, ENTRADAS/SALIDAS Y CIRCULACIONES PARA COLECTIVOS DEL POLIDEPORTIVO DE ZUBIKOA

IRIZPIDE OROKORRAK

Criterios generales

1. Zirkulazio-baldintzak, sarrera-irteerak eta aldagelen erabilera aldatu egin daitezke egungo osasun-egoera aldatu ahala.
Las condiciones de circulación, entradas y salidas y así como el uso de vestuarios pueden variar según varíe la situación sanitaria actual.
2. Batzordeak onartutako jarduera-egutegietara mugatuko da jarduera hori, eta, beraz, taldeak aurrez ezarritako ordutegi eta egunetan soilik sar daitezke Zubikoako kiroldegian.
El acceso quedará restringido a los calendarios de actividades aprobados por comisión y por tanto los colectivos tan sólo pueden acceder al polideportivo de Zubikoa en las horarios y días preestablecidos.
3. Eskaeratan, protokoloaz gain, jardueraren hasiera-data eta talde bakoitza osatzen duten pertsonen kopurua zehaztu behar dira.
En las solicitudes además del protocolo se debe detallar la fecha de inicio de la actividad así como el número de personas que forman cada grupo.
4. Taldeak mailaka hastea gomendatzen da, ikastaro, kategoria eta adinaren arabera, instalazioaren funtzionamendua eta osasun-egoeraren eskakizunetara egokitzeko modurik onena zein den ikusteko.
Se aconseja hacer un inicio progresivo de los diferentes grupos a la actividad por cursos, categorías, edades... con el fin de ir viendo cual es el funcionamiento de la instalación y la mejor manera de adaptarse a las exigencias de la situación sanitaria.
5. Talde bakoitzak arduradun bat izango du, eta arduradun hori arduratuko da bai aldagelen erabilera, bai instalazioko zirkulazioak eta horien sarrerak eta irteerak dokumentu honetan jasotzen diren bezalakoak izateaz. Arduradun horrek bere taldeetan gertatzen diren gorabeheren berri emango du, eta, bereziki, COVID-19an positiboren bat badago jakinaraziko du.
Cada grupo contará con un responsable que se encargará de que tanto el uso de los vestuarios como las circulaciones por la instalación y sus entradas y salidas sean tal y como en este documento se recogen. Dicho responsable informará de las incidencias que se den en sus grupos y en especial se notificará siempre que en el grupo alguien de positivo en el COVID-19.
6. Positiboren bat gertatuz gero, kasu bakoitzerako Osasun Sailak zehazten dituen aginduak beteko dira.
En caso de darse algún positivo se seguirán las prescripciones que Sanidad determine para cada caso.

IRIZPIDE ZEHATZAK*Criteria concretos***ZIRKULAZIOAK ETA SARTU IRTENAK***Circulaciones y entradas y salidas*

1. Kantxa bakoitzeko 3 talde sartzen dira, eta gehienez ere 6 bat etor daitezke sartzeko eta irteteko ordutegietan. Jendetzarik egon ez dadin, taldeak, sartu aurretik, kiroldegiaren kanpoaldean elkartuko dira, eta 3 espazio mugatuko dira bertan 3 talderentzat.
Por cancha entran 3 grupos y a lo sumo 6 pueden coincidir en horarios de entrada y salida. Para evitar aglomeraciones los grupos antes de entrar se agruparan en el exterior del polideportivo donde se delimitarán 3 espacios para 3 grupos diferentes.
2. Taldekide guztiak kanpoan bilduta daudenean **arduradunarekin**, dagokien kantxaren herenean sar daitezke, kiroldegiaren barruan markatutako zirkulazio-zirkuituei jarraituz.
Una vez todos los miembros del grupo estén reunidos en el exterior con su responsable pueden entrar al tercio de cancha que les corresponde siguiendo los circuitos de circulación marcados en el interior del polideportivo.
3. Bi taldek edo gehiagok bat egiten badute sartzeko, mailaz maila egin beharko dute, talde bakoitzeko gutxienez 3 minutuko tartearekin.
Si dos grupos o mas coinciden para entrar deberán hacerlo escalonadamente con un margen mínimo de 3 minutos por equipo.
4. Taldeen irteera ere mailakatua izan behar da, eta sarrera-ordena berari jarraitu behar zaio.
La salida de los grupos también debe ser escalonada y siguiendo el mismo orden de entrada.
5. Taldeek ez dute inola ere bat etorri behar sarrera eta irteeretan.
En ningún caso los grupos deben coincidir en entradas y salidas.
6. Kantxako espazioetatik kanpo, kiroldegiaren barruan ez da pertsona-elkarterik egon behar.
En ningún caso deben darse agrupaciones de personas dentro del polideportivo fuera de los espacios de cancha.

ALDAGELEN ERABILERA*Uso de vestuarios*

1. **Aldagelak ez erabiltzea** gomendatzen da. (Eskola kirola eta kirol eskolek debekatuta dute erabiltzea)
Se recomienda **no hacer uso de los vestuarios**. (El deporte escolar y las escuelas deportivas los tienen prohibidos)

2. *Aldagelak erabiltzea erabakitzen duten talde guztiek aldagelak erabiltzeko modua aurkeztu beharko dute.*
Todos los grupos que decidan hacer uso de los vestuarios deberán presentar la manera en la que haran uso de los mismos.
3. *Aldagelak erabiliz gero, aldagelen edukiera errespetatu behar da.*
En caso de hacer uso de los vestuarios se debe respetar el aforo de los mismos.
4. *Eserleketan eta dutxetan erabiltzeko egokitutako espazioak errespetatu behar dira, eta ezin dira inola ere erabili desgaitutako espazioak.*
Se deben respetar los espacios de uso habilitados en bancos y duchas para ser usados no pudiendose en ningún caso utilizar los espacios inhabilitados.
5. *Talde batek beti aldagela berbera erabili behar du, eta, ahal dela, pertsona bakoitzak espazio bera erabili behar du aldagela barruan.*
Un mismo grupo debe usar siempre el mismo vestuario y a ser posible, cada persona debe hacer uso del mismo espacio dentro del mismo vestuario.
6. *Prebenitzeko higiene neurriak errespetatu behar dira:*
 - *Ez bazara ondo sentitzen ez etorri.*
 - *Etxetik kirol jantziz aldatuta etorri.*
 - *Oinetakoak bertan aldatu ekintza guneetan sartu aurretik.*
 - *Norberaren materiala ekartzea gomendatzen da: esterilla, ura...*
 - *2 metroko segurtasun-tartea mantendu.*
 - *Norberaren eskuoihala nahitaez erabili behar da. Bi eskuoihal gomendatzen dira: bat izerdiarentzat eta bestea makineriaren gainean jartzeko eta ondorengo garbiketarako.*
 - *Eskularru laburrak erabiltzea gomendatzen da, baita eskumuturrekoak eta buruko zintak/musuzapiak ere.*
 - *Jarduera amaitu ondoren, erabilitako espazioak desinfektatu beharko dira, baita zorua ere, izerdituz gero. Era berean, eskularruak eta maskara berriz janztea gomendatzen da.*

Se deben respetar las medidas de higiene preventivas:

- *Si no te sientes bien no vengas.*
- *Preferiblemente ven **cambiado** desde casa.*
- ***Cambiate de zapatillas** antes de entrar en las salas de actividad.*
- *Se recomienda traer cada uno su propio material: esterilla, agua...*
- *Mantener la distancia de seguridad de **2 metros**.*
- ***Uso obligatorio de toalla.** Se recomiendan dos toallas: una para el sudor y otra para colocar encima de la maquinaria y su posterior limpieza.*
- *Se recomienda el uso de **guantes cortos**, así como **muñequeras y cintas/pañuelos** para la cabeza.*
- *Una vez finalizada la actividad se debe **desinfectar los espacios utilizados** así como **el suelo** en caso de sudoración. Así mismo, se recomienda ponerse de nuevo los guantes y la mascarilla.*